

1. BALIO PROPOSAMENA

- Gure ideia, zapatak duen zolari esker, edozein azalerara egokitu daiteke, adibidez, uretarako, mendirako eta abarretarako. Horrela, oinetakoen bizitza baliagarria luzatuko litzateke, eta batez ere, oinen osasuna. Kalitate txarreko zolak edo zola desegokiak erabiltzeak areagotu egiten du lesioak edo arazo fisikoak garatzeko probabilitatea; hori dela eta, zola irristagaitza izan behar du, isolamendu onekoa, moteltzeko gaitasunekoa eta egonkortasuna ematen duena.
- Gure produktuak aurrezpen ekonomikoa ez ezik, espazioa ere aurreztuko luke, ez bakarrik gure etxeetan, baita gure bidaietarako edo joan-etorrietarako ekipajea egiterakoan ere.
- Gure ekoizpen-ereduak material ekologikoa eta birziklatua barne hartuko lituzke, baliabide naturalen kontsumoa murrizteko eta ingurumena ez kaltetzeko.

